BILBOKO UDALAREN ETA ASOCIACIÓN SOCIAL CULTURAL TENDEL ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, KULTURARTEKO ETA GIZARTEAREN, KIROLAREN ETA AISIAREN ARLOKO ANIMAZIORAKO OtxarkoagaGO 2026 PROGRAMA GARATZEKO (2026ko dirulaguntza izenduna)

BILDU DIRA:

Alde batetik, **IÑIGO ZUBIZARRETA AGUIRREZABAL** jauna, Bilboko Udaleko Giza Eskubideak, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasunaren Saileko zinegotzi ordezkaria (IFKa: P4802400D), hitzarmen hau formalizatzeko gaikuntza daukana Gobernu Batzordearen **2026ko urriaren 28ko** Erabakiaren bidez.

Bestetik, **GERMAN OLIVA BARRUSO jauna**, ASOCIACIÓN SOCIAL CULTURAL TENDEL (aurrerantzean, TENDEL) elkarteko presidentea (elkarte hori Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dago 1999ko azaroaren 12an emandako ebazpenaren bidez –erregistro-zenbakia: AS/B/08272/1999; IFKa: G95059564–), erakunde horren izenean eta hura ordezkatuz. Hala, alde biek

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA:

Bilboko Udalak integrazioko eta kultur artekotasuneko politikak egiten ditu. Horrela, **Atzerritarren eskubide eta askatasunei eta beraien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren 2 bis eta 2 ter artikuluen** agindua betetzen du. Artikulu horien arabera, izan ere, politika

CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO Y LA ASOCIACIÓN SOCIAL CULTURAL TENDEL PARA EL DESARROLLO DEL PROGRAMA OtxarkoagaGO PARA LA ANIMACIÓN INTERCULTURAL, SOCIAL, DEPORTIVA Y OCIO – 2026 (Subvención Nominativa 2026)

REUNIDAS

De una parte, **D. IÑIGO ZUBIZARRETA AGUIRREZABAL**, Concejal Delegado del Área de Derechos Humanos, Convivencia, Cooperación e Interculturalidad del Ayuntamiento de Bilbao, con CIF P4802400D, facultada para la formalización de este Convenio por Acuerdo de la Junta de Gobierno de la Villa de fecha **28 de octubre de 2026.**

De la otra, **D. GERMAN OLIVA BARRUSO,** presidente de la ASOCIACIÓN SOCIAL CULTURAL TENDEL –en adelante TENDEL-, inscrita en el Registro General de Asociaciones del País Vasco en virtud de Resolución dictada en fecha 12 de noviembre de 1999, con el número de Registro AS/B/08272/1999 con CIF G95059564, que actúa en nombre y representación de esta entidad,

EXPONEN

PRIMERO:

Que el Excmo. Ayuntamiento de Bilbao desarrolla políticas en materia de integración e interculturalidad dando así cumplimiento al mandato legal contenido en el **artículo 2bis y 2ter de la Ley Orgánica 4/2000 de Derechos y Libertades de las Personas Extranjeras y su Integración Social**, que determina la obligación de incorporar el objetivo de la

publiko guztietan integrazioaren helburua sartu behar da.

Modu berean, **Euskadiko tokiko erakundeen 2/2016 Legeak, 17.1.35 artikuluan**, immigrazio gaietan gizarteratze politikak kudeatzeari buruz udalerriek duten eskumen propioa ezartzen du, atzerritartasunaren legeen arabera, eta autonomia-erakundeekin lankidetzan.

Bilboko Udalak kulturartekotasunaren arloko udal-politika garatzen du **"Bilbo, Kulturarteko Uria" III. Planaren bidez**, eta lehentasun estrategiko modura ezartzen du parte-hartze soziala, zeina funtsezko elementua baita Bilbo kulturarteko uri modura garatzeko, gizarte-eraldaketaren ondorioek denboran iraungo dutela eta bizikidetza benetan hobetuko dutela bermatzeko. Dibertsitatea kudeatzeko kulturarteko ereduaren interakzio positiboaren printzipioa herritarren parte-hartzearekin lotuta dago zuzenean, eta hori funtsezko elementua da eguneroko topaketa positiboak eta eraikitzaileak egin ahal izateko jatorri eta bizimodu desberdinetako pertsonen artean, elkarrenganako errespetuzko, ulermenezko eta lankidetzazko giro batean. Askotariko herritarren arteko elkarrekintza positiboko espazio horiek antolatzea da III. Planaren beste estrategia giltzarrietako bat, eta topaketa horiek hainbat eremutan izatea ahalbidetzen da esku-hartze programa bakoitzean. Interakzio esanguratsu eta positiboa aldez aurreko baldintza da jatorri edo identitate desberdinetako pertsonen artean konfiantza eta loturak sortzeko; kontakturik ezak, berriz, konfiantza, elkartasuna eta gizarte-kohesioa ahultzen ditu. Beraz, Plan honen esparruan funtsezkoa da hezkuntzaren, kulturaren, gizartearen, kirolaren, enpresaren eta

integración en el conjunto de las políticas públicas.

Así mismo, la **Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi establece en su artículo 17.1.35º** la competencia propia de los municipios relativa a la a la gestión de las políticas de integración social en materia de inmigración, de acuerdo con la legislación en materia de extranjería y en cooperación con las instituciones autonómicas.

El Ayuntamiento de Bilbao desarrolla la Política Municipal en materia de interculturalidad a través del **III Plan Bilbao Ciudad Intercultural** y fija como prioridad estratégica la participación social, que se configura como un elemento esencial en el desarrollo de Bilbao como ciudad intercultural, para garantizar que los efectos de la transformación social se mantengan en el tiempo y supongan una mejora real de la convivencia. El principio de interacción positiva del modelo intercultural de gestión de la diversidad está directamente vinculado con la participación ciudadana, elemento esencial para que puedan producirse encuentros cotidianos positivos y constructivos entre personas de diferentes orígenes y estilos de vida, en un clima de respeto mutuo, comprensión y cooperación. La articulación de estos espacios de interacción positiva entre la ciudadanía diversa es otra de las estrategias clave del III Plan, favoreciéndose en cada uno de los programas de intervención que estos encuentros puedan producirse en diferentes ámbitos. La interacción significativa y positiva es una condición previa para crear confianza y conexiones entre personas de diversos orígenes o identidades, mientras que la ausencia de contacto socava la confianza, la solidaridad y la cohesión social. Por lo tanto, es esencial en el marco de este Plan promover la interacción en el ámbito educativo, cultural, social, deportivo, empresarial, etc., así como el diálogo y

abarren eremuan elkarrekintza sustatzea, bai eta helburu komunei eta kulturarteko bizikidetzari buruzko elkarrizketa eta eztabaida eraikitzailea ere.

"Bilbo, Kulturarteko Uria" III. Planak esku hartzeko hiru eremu ditu, honako hauek ardatz hartuta:

- **Auzoak.** Helburua: Auzoetako gizarte eta kultur bizimoduan gehiago parte hartzea eta gehiago hurbiltzea, kulturartekotasunaren ikuspuntutik. Lan-eremu honetako jarduketek hurbileko esku-hartze komunitarioak errazten dituzte, auzoetan bizikidetza eta gizarte-kohesioa sustatzeko.
- **Kultura, kirola eta aisialdia.** Helburua: Kulturaren, kirolaren, artearen eta aisialdiaren inguruko programazioa baliatzea bizikidetzarako tresna modura. Pertsonek beren aisialdiari ematen dioten denbora, askotan, aukera onena izan daiteke kultura desberdinetako beste herritar batzuekin egoteko eta inplikatzeko. Kulturarteko uriak kultura-irekiera susta dezake bere jardueren bidez, eta arte-, kultura- eta kirol-erakundeei baliabideak esleitzeko orduan kulturarteko irizpideak txertatuz.
- **Espazio publikoa.** Helburua: Espazio publikoen erabilera sustatzea, kulturen arteko bizikidetza bultzatzea. Espazio publikoak (kaleak, plazak, parkeak, etab.) eta instalazioak (eraikin publikoak, eguneko zentroak, eskolak, osasun-zentroak, etab.) espazio estrategikoak dira urian kulturen arteko elkarreragin positiboa izateko, nazionalitate, jatorri, hizkuntza, erlijio edo sinesmen, sexu-orientazio eta adin-talde desberdinetako

debate constructivo sobre los objetivos comunes y la convivencia intercultural.

El III Plan Bilbao Ciudad Intercultural dispone de tres ámbitos sectoriales de intervención centrados en:

- **Barrios**. Objetivo: Promover una mayor participación y acercamiento en clave intercultural en la vida social de los barrios. Las actuaciones de este ámbito de trabajo favorecen intervenciones comunitarias de cercanía para promover la convivencia y la cohesión social en los barrios.
- **Cultura, deporte y ocio**. Objetivo: Utilizar la programación cultural, deportiva y artística y de ocio como una herramienta para la convivencia. El tiempo que las personas asignan a su ocio a menudo puede ser la mejor oportunidad para que se encuentren e involucren con otras ciudadanas y ciudadanos de culturas diferentes. La ciudad intercultural puede fomentar la apertura cultural a través de sus propias actividades e introduciendo criterios interculturales a la hora de asignar recursos a las organizaciones artísticas, culturales y deportivas.
- **Espacio público**. Objetivo: Promover la utilización de los espacios públicos favoreciendo la convivencia intercultural- Los espacios públicos (calles, plazas, parques, etc.) y las instalaciones (edificios públicos, centros de día, escuelas, centros de salud, etc.) son espacios estratégicos para la interacción positiva intercultural en la ciudad, ya que ofrecen la posibilidad de conocer a personas de diferentes nacionalidades, orígenes, lenguas, religiones/ creencias, orientaciones sexuales y grupos de edad. Para que se produzcan realmente encuentros

pertsonak ezagutzeko aukera ematen baitute. Askotariko pertsonen arteko benetako topaketak gerta daitezen, espazio eta instalazio horiek erabiltzeko orduan guztiak eroso sentitzeko moduan diseinatu eta dinamizatu behar dira. Espazio seguruak sortzea, aniztasunak batu eta bizikidetza hobetzen lagun dezan, uriaren aldeko apustu garbia da.

entre personas diversas, estos espacios e instalaciones deben estar diseñados y dinamizados de forma que todas se sientan cómodas al utilizarlos. Crear espacios seguros, en los que la diversidad sume y contribuya a mejorar la convivencia, es una apuesta clara para la ciudad.

BIGARRENA:

ASOCIACIÓN SOCIAL CULTURAL TENDEL elkartearen helburu soziala honako hau da:

- Otxarkoaga auzoko gazteentzako jarduerak eta programak sustatzea.
- Otxarkoagaren gizarte-garapenean gizarte-eragile gehiagorekin koordinatutako jarduna sustatzea.
- Auzoa aktibatzea eta ekitaldiak sustatzea, gazteekin lotutako alderdi guztien garapena bultzatzeko.

SEGUNDO:

Que la ASOCIACIÓN SOCIAL CULTURAL TENDEL tiene como objeto social:

- Fomentar actividades y programas para los jóvenes del Barrio de Otxarkoaga.
- Promover la actuación coordinada con más agentes sociales en el desarrollo social de Otxarkoaga.
- Activar y promover actos, con el propósito de impulsar un desarrollo de todos los aspectos relacionados con el mundo juvenil.

1999az geroztik, TENDEL elkarteak komunitatean egin du lan, auzoko gizarte- eta kultura-sare aberatsarekin lankidetzan, eta erreferente bihurtu da gizarte-kohesioa eta identitatea sustatzeko eta auzoaren nortasunari balioa emateko lanean.

Desde el año 1999 la Asociación TENDEL, en colaboración con el rico tejido social y cultural del barrio, ha venido trabajando en la comunidad y se ha constituido en un referente para fomentar la cohesión social, promover la identidad y poner en valor la personalidad del barrio.

TENDEL auzo-elkarte bat da, eta 3. barrutian (Otxarkoaga eta Txurdinaga) bakarrik egiten du lan. Elkartearen zuzendaritza-batzordea boluntarioek osatzen dute, eta auzoa hobetzeko baliabide gisa funtzionatzen duen zerbitzu bat ematen dute. Elkarteko profesional gehienak bizitza eta bizi-proiektua auzoan egiten duten barrutiko gazteak dira.

TENDEL es una Asociación de barrio, que trabaja exclusivamente en el ámbito del Distrito 3 (Otxarkoaga y Txurdinaga). Su junta directiva está compuesta por voluntariado, que crea este servició como un recurso para mejorar el barrio. Las y los profesionales de la Asociación son en su amplia mayoría jóvenes del Distrito, que realizan su vida y su proyecto de vida en el barrio.

TENDEL kulturarteko elkarte bat da. Bertan parte hartzen dutenen artean askotariko etnia, kultura eta nazionalitatetako jendea dago.

TENDEL es una Asociación Intercultural, entre las personas que colaboran en la misma y en la marcha de los proyectos encontramos personas de diferentes procedencias étnicas, culturales y nacionales.

TENDEL elkarteak hainbat proiektutan parte hartzen du auzoko gizarte-eragileekin batera.

- Txirula erakundeko kide da, zeina Otxarkoagako haurrentzako jardunaldiak antolatzeaz arduratzen baita. Jarduera horrek mugitzen du, alde handiarekin, jende gehien auzoan (30 ediziok baino gehiagok hala bermatzen dute).
- Auzoko jai-batzordeko kidea da. Funtsezko entitateetako bat da jai-batzordean, eta, horri esker, jaiek osagai herrikoi eta parte-hartzailea dute.
- 3. barrutiko batzorde soziokulturalean, gizarte-etxeko taldeen koordinatzailean eta 3. barrutiko gizarte- eta hezkuntza-mahaian parte hartzen du.

TENDEL participa en varios proyectos en común con agentes sociales del barrio.

- Pertenece a la Organización de Txirula, la organización encargada de la organización de las Jornadas infantiles de Otxarkoaga. Esta actividad es con diferencia el evento que más personas mueve en el barrio, (más de 30 ediciones así lo avalan)
- Pertenece a la Comisión de Fiestas del barrio. En la comisión de fiestas es una de las entidades fundamentales, lo que propicia que tengan un componente popular y participativo.
- Participa en la comisión socio-cultural del Distrito 3, en la coordinadora de grupos del Centro Cívico y en la Mesa socio-educativa del Distrito 3.

Lan hori guztia egiteko, beste elkarte batzuekin koordinatzen da. Halaber, auzoko oinarrizko hezitzaileen udal-taldearekin ere koordinatzen da, zenbait neska-mutilek erantzuna jaso dezaten elkartearen programa eta tailerretan.

Este trabajo se realiza en coordinación con otras asociaciones, así como con el equipo municipal de Educadores de base del barrio, para que varios chicos y chicas tengan una repuesta dentro de los programas y talleres de la asociación.

HIRUGARRENA:

TENDEL elkarteak OtxarkoagaGO programarako proposatutako helburuak eta jarduerak honako hauekin bat datoz:

- **Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen** 17.1.20 eta 17.1.35 artikuluak.

TERCERO:

Las finalidades y actividades propuestas por la Asociación TENDEL en el desarrollo de su programa OtxarkoagaGO están alineadas con:

- Los artículos Art. 17.1. 20 y 17.1.35 de la **Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi**.

- **"Bilbo, Kulturarteko Uria" III. Plana**, **auzoetan, kulturan, kirolean eta aisialdian** eta **espazio publikoan** oinarritutako hiru sektore-esparruekin lotuta dagoenez gero.
- Bilboko Udalaren "**Bilbao Balioen Hiria" Balioen Agiria**, zeinak inklusioa, tolerantzia eta bizikidetza bultzatzen dituzten ekintzak garatzearen aldeko apustua egiten baitu kultura-aniztasunaren ikuspegitik, tartean izanez beti justizia soziala, giza eskubideen errespetua, inklusioa, konpromisoa, elkartasuna eta parte-hartzea bezalako balioak.
- **Nazio Batuen Erakundeak (NBE) 2015ean onartutako Garapen Jasangarrirako Helburuak:**Kultura babestea eta sustatzea berezko bi helburu dira, eta, aldi berean, beste hainbat bitarteko GJHak lortzen zuzenean laguntzeko: hiri seguru eta jasangarriak lortzea, hazkunde ekonomikoa eta lan duina sustatzea, desberdintasunak murriztea, ingurumenaren degradazioa geldiaraztea, genero-berdintasuna lortzea eta gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea. Kulturak sortutako zeharkako onurek metatze-efektua dute, GJHak lortzera bideratutako kultura-oinarriko jarduera eraginkorrei esker.

- El **III Plan Bilbao Ciudad Intercultural** en lo que tiene que ver con los tres ámbitos sectoriales de intervención centrados en **Barrios**, **Cultura, deporte y ocio**, y **Espacio público.**
- **Carta de Valores de "Bilbao Balioen Hiria"** del Ayuntamiento de Bilbao en tanto apuesta por el desarrollo de acciones que favorezcan la inclusión, la tolerancia y la convivencia desde la diversidad cultural, y en la que valores como la justicia social, el respeto a los derechos humanos, la inclusión, el compromiso, la solidaridad y la participación están siempre presentes.
- Objet**ivos de Desarrollo Sostenible aprobados por la Organización de las Naciones Unidas (ONU) en 2015:** La salvaguardia y la promoción de la cultura son dos fines de por sí y, al mismo tiempo, otros tantos medios para contribuir directamente a la consecución de muchos ODS: lograr ciudades seguras y sostenibles, fomentar el crecimiento económico y el trabajo decente, reducir la desigualdad, detener la degradación del medio ambiente, lograr la igualdad de género y promover sociedades pacíficas e inclusivas. Los beneficios indirectos generados por la cultura tienen un efecto acumulativo, gracias a las actividades eficaces con base cultural encaminadas al logro de los ODS.

Bilboko Udalak aitortu egiten du TENDEL elkarteak 3. barrutiko Otxarkoaga auzoan egindako lana eta esperientzia.

Hala, Giza Eskubideak, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasuna Sailaren 2026ko aurrekontuan, **50.000,00 euroko**

El Ayuntamiento de Bilbao reconoce el trabajo y la consolidada experiencia de la Asociación TENDEL en el barrio de Otxarkoaga en el Distrito 3.

Así, en el Presupuesto del año 2026 del Área de Derechos Humanos, Convivencia, Cooperación e Interculturalidad está prevista una **subvención nominativa por importe**

dirulaguntza izenduna aurreikusi da TENDEL elkartearentzat, OtxarkoagaGO programa sustatzeko udal-konpromisoaren erakusgarri.

Alderdiek adierazitakoaren arabera, eta elkarri aitortuz egintza honetan esku hartzeko gaitasun eta eskumen nahikoa, lankidetza-hitzarmen hau formalizatzen dute, klausula hauekin bat:

total de 50.000,00 € a favor de la Asociación TENDEL**,** como muestra del compromiso municipal para promover el programa OtxarkoagaGO.

De acuerdo con lo anteriormente expuesto las partes, reconociéndose capacidad y competencia suficiente para intervenir en este acto, proceden a formalizar el presente Convenio de acuerdo a las siguientes

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENENGOA.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da TENDEL elkarteari (IFKa: G95059564) ematea Bilboko Udalaren 2026rako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izenduna, elkarteak OtxarkoagaGo programaren gastuei aurre egin diezaien, elkarteak berak 2026rako formulatu duen programaren arabera (1. eranskina). Halaber, TENDEL elkartearen eta Bilboko Udalaren arteko koordinazio-esparrua ezartzen da, jarraian azaltzen diren klausulen arabera.

PRIMERA: OBJETO

Es objeto del presente convenio canalizar la subvención prevista nominativamente en los Presupuestos del Ayuntamiento de Bilbao para el año 2026 a favor de la Asociación TENDEL, con CIF G95059564, para hacer frente a los gastos del programa OtxarkoagaGo, según el programa que la entidad ha formulado para el año 2026 y que se adjunta como Anexo 1. Asimismo, se establece el marco de coordinación entre la Asociación TENDEL y el Ayuntamiento de Bilbao, de conformidad a las cláusulas que figuran a continuación.

BIGARRENA.- JARDUERAREN HELBURUAK

Programaren xedea da zenbait kolektibo sozioekonomiko eta kulturalen integrazio sozialerako sektore arteko ekintza-plan bat abian jartzea, eta programak jarraipena ematen dio "Imajinatu Otxarkoaga" eta "Ni Otxarren alde" plan komunitarioetan egindako lanari.

SEGUNDA: OBJETIVOS DE LA ACTIVIDAD

El programa busca poner en marcha un plan de acción intersectorial para la integración social de distintos colectivos socio-económicos y culturales del barrio, y da continuidad al trabajo realizado en los planes comunitarios de “Imagina Otxakoaga” y “Yo con Otxar.

Helburu nagusia

Garapen komunitarioko programa bat ezartzea, auzotarren bizikidetza eta auzotarrek auzoko bizitzan duten inplikazioa

Objetivo general

Implementar un programa de desarrollo comunitario que permita mejorar la convivencia vecinal y la implicación de los

hobetzeko. Horretarako, dinamizazio-ekintzak eta parte-hartze komunitarioa, prestakuntza, orientazio soziolaborala, bitartekaritza komunitarioa eta sentsibilizazio soziala sustatuko dira auzoko kolektiboentzat. Urtero biztanleriaren sektore espezifiko bat izango da kolektibo hori.

Helburu espezifikoak:

- Auzo-mugimendu aktiboa, kezka sozialak dituena eta ingurunearekin arduratsua dena sustatzea, bizikidetza komunitarioko loturak sortuko dituena.
- Auzoan bizi diren auzotarren parte-hartze komunitarioa sustatzea, agente biderkatzaileekin eta tokiko erakundeekin lankidetzan.
- Komunitateko kideen garapen pertsonal, laboral, familiar eta sozialerako aukerak sustatzea.
- Topaketa-, komunikazio- eta harreman-espazioak sortzea kolektiboen eta komunitateko kideen artean.
- Auzoaz dagoen pertzepzioa hobetzea.

TENDEL da prozesuaren burua, eta, horretarako, talde komunitario bat du. Talde horrek lan erraztailea egingo du komunitateko protagonistekin batera, gutxienez lau urtez, honako helburu hauek lortzeko:

- Tokiko garapena erraztuko duten eta herritar guztien bizi-baldintzak hobetuko dituzten prozesuak bultzatzea.
- Gizarte osoa gaitzea errealitate berriaren aukerei, erronkei eta arazoei aurre egiteko.

vecinos y vecinas en la vida del barrio realizando acciones de dinamización y participación comunitaria, formación, orientación socio-laboral, mediación comunitaria y sensibilización social dirigidos a los diferentes colectivos del barrio. Siendo cada año un sector específico de la población.

Objetivos específicos

- Potenciar un movimiento vecinal activo, con inquietudes sociales y responsable con su entorno, que cree lazos de convivencia comunitaria.
- Promover la participación comunitaria de los vecinos y vecinas residentes en el barrio en colaboración con los diferentes agentes multiplicadores y entidades locales.
- Promover posibilidades de desarrollo personal, laboral, familiar y social de los miembros de la comunidad.
- Crear espacios de encuentro, comunicación y relación entre los diferentes colectivos y miembros de la comunidad.
- Mejorar la percepción de barrio.

La Asociación TENDEL es la encargada de liderar el proceso, para lo que cuenta con un Equipo Comunitario que desarrollará su labor facilitadora junto a los diferentes protagonistas de la Comunidad, durante al menos, cuatro años, para:

- Impulsar procesos que favorezcan el desarrollo local y mejoren las condiciones de vida de toda la población.
- Capacitar al conjunto de la sociedad para afrontar las oportunidades, retos y problemáticas de la nueva realidad.

- Gatazka sozialak prebenitzea eta leheneratzea, herritarren kultura arteko bizikidetzaren alde.

Programaren barruan egiten diren jarduerak BILBO, KULTURARTEKO HIRIA III. Udal Planean jasotako eremu hauei zuzenean lotuta daude.

- **Auzoak.** Helburua: Auzoetako gizarte- eta kultura-bizimoduan gehiago parte hartzea eta gehiago hurbiltzea, kulturartekotasunaren ikuspuntutik. Lan-eremu honetako jarduketek hurbileko esku-hartze komunitarioak errazten dituzte, auzoetan bizikidetza eta gizarte-kohesioa sustatzeko.
- **Kultura, kirola eta aisialdia.** Helburua: Kulturaren, kirolaren, artearen eta aisialdiaren inguruko programazioa baliatzea bizikidetzarako tresna modura. Pertsonek beren aisialdiari ematen dioten denbora, askotan, aukera onena izan daiteke kultura desberdinetako beste herritar batzuekin egoteko eta inplikatzeko. Kulturarteko uriak kultura-irekiera susta dezake bere jardueren bidez, eta arte-, kultura- eta kirol-erakundeei baliabideak esleitzeko orduan kulturarteko irizpideak txertatuz.
- **Espazio publikoa.** Helburua: Espazio publikoen erabilera sustatzea, kulturen arteko bizikidetza bultzatzea. Espazio publikoak (kaleak, plazak, parkeak, etab.) eta instalazioak (eraikin publikoak, eguneko zentroak, eskolak, osasun-zentroak, etab.) espazio estrategikoak dira urian kulturen arteko elkarreragin positiboa izateko, nazionalitate, jatorri, hizkuntza, erlijio edo sinesmen, sexu-orientazio

- Prevenir y revertir situaciones de conflictividad social en pro de la convivencia ciudadana intercultural.

Las diferentes actividades que se realizan dentro del programa están directamente vinculadas a los siguientes ámbitos específicos recogidos en el III Plan BILBAO CIUDAD INTERCULTURAL

- **Barrios**. Objetivo: Promover una mayor participación y acercamiento en clave intercultural en la vida social de los barrios. Las actuaciones de este ámbito de trabajo favorecen intervenciones comunitarias de cercanía para promover la convivencia y la cohesión social en los barrios.
- **Cultura, deporte y ocio**. Objetivo: Utilizar la programación cultural, deportiva y artística y de ocio como una herramienta para la convivencia. El tiempo que las personas asignan a su ocio a menudo puede ser la mejor oportunidad para que se encuentren e involucren con otras ciudadanas y ciudadanos de culturas diferentes. La ciudad intercultural puede fomentar la apertura cultural a través de sus propias actividades e introduciendo criterios interculturales a la hora de asignar recursos a las organizaciones artísticas, culturales y deportivas.
- **Espacio público**. Objetivo: Promover la utilización de los espacios públicos favoreciendo la convivencia intercultural- Los espacios públicos (calles, plazas, parques, etc.) y las instalaciones (edificios públicos, centros de día, escuelas, centros de salud, etc.) son espacios estratégicos para la interacción positiva intercultural en la ciudad, ya que ofrecen la posibilidad de conocer a personas de diferentes nacionalidades, orígenes, lenguas,

eta adin-talde desberdinetako pertsonak ezagutzeko aukera ematen baitute. Askotariko pertsonen arteko benetako topaketak gerta daitezen, espazio eta instalazio horiek erabiltzeko orduan guztiak eroso sentitzeko moduan diseinatu eta dinamizatu behar dira. Espazio seguruak sortzea, aniztasunak batu eta bizikidetza hobetzen lagun dezan, uriaren aldeko apustu garbia da.

religiones/ creencias, orientaciones sexuales y grupos de edad. Para que se produzcan realmente encuentros entre personas diversas, estos espacios e instalaciones deben estar diseñados y dinamizados de forma que todas se sientan cómodas al utilizarlos. Crear espacios seguros, en los que la diversidad sume y contribuya a mejorar la convivencia, es una apuesta clara para la ciudad.

Hitzarmenaren helburu den jardueraren eduki zehatza dokumentu honen 1. ERANSKINEAN dago jasota.

El contenido detallado de la actividad objeto de convenio se recoge en el ANEXO 1 al presente documento.

HIRUGARRENA.- KOORDINAZIOA

Bilboko Udalaren eta TENDEL elkartearen arteko koordinazioa honela gauzatzen da:

Akordio honetan ezarritako helburuak garatzeko, koordinazio batzorde bat sortu da, alde sinatzaileek modu parekidean osatuko dutena. Batzordea aldian behin batzartuko da eta funtzio hauek izango ditu:

- Jardueren urteko programa betetzeari jarraipena egitea.
- Akordio hau betetzeko neurri egokiak orientatzea, antolatzea eta adostea, eta hura garatzean sortu daitezkeen arazoak konpontzea.
- Interes komuneko eremuak identifikatzea, proposamenak egiteko eta formulatzeko helburuz, akordioaren baldintzen itzalpean. Proposamen horiek ez dira lotesleak izango eta ez dira gauzatuko harik eta alde biek onartu arte.
- Adostutako lan-planaren garapenean komunikazio- eta zabalkuntza-ekintzak adostea eta beraien jarraipena egitea.
- Programa gauzatzea ebaluatzea.

TERCERA: COORDINACIÓN

La coordinación entre el Ayuntamiento de Bilbao y TENDEL se concreta del modo siguiente:

Para el desarrollo de los fines previstos en este acuerdo, se crea una Comisión de Coordinación integrada de forma paritaria por las partes firmantes, que se reunirá periódicamente con las siguientes funciones:

- Seguimiento de la ejecución del programa de actividades.
- Orientar, organizar y acordar las medidas pertinentes para la ejecución del presente Acuerdo y resolver cuantas cuestiones pudieran surgir en su desarrollo.
- Identificar las áreas de interés común para elaborar y formular propuestas al amparo de los términos del acuerdo, que no serán vinculantes ni ser harán efectivas hasta su aprobación por ambas partes.
- Acordar y hacer seguimientos de las acciones de comunicación y difusión generadas en el desarrollo del plan de trabajo acordado.
- Evaluar la ejecución del programa.

LAUGARRENA: JARDUTEKO LURRALDE-EREMUA

Hitzarmen honen aplikazioari lotutako lurralde-eremua Bilboko udalerria da, eta jarduerak Otxarkoagako (3. barrutia) komunitatearentzat izango dira bereziki (TENDEL elkarteak bertan egiten du lan), baina baita prestatutako agenda soziokulturalean parte hartu nahi duten gainerako bilbotarrentzat ere.

CUARTA: ÁMBITO TERRITORIAL DE ACTUACIÓN

La demarcación territorial a la que se refiere la aplicación del presente convenio será el municipio de Bilbao y las actividades irán dirigidas especialmente a la comunidad de Otxarkoaga (Distrito 3) donde TENDEL desarrolla su intervención, así como al resto de vecinos y vecinas de Bilbao que deseen participar de la agenda cultural y social desarrollada.

BOSGARRENA.- PROIEKTUAREN AURREKONTUA ETA BILBOKO UDALAREN DIRULAGUNTZA.

1. Bilboko Udalak **50.000,00 euroko** dirulaguntza emango dio TENDEL elkarteari (IFKa: G95059564) 2026ean hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak egiteko.

2. Dirulaguntza **ordainketa bakarrean** ordainduko da, aurretik, eta kopuru horrengatik bermerik eman gabe.

3. Ordainketa egiteko, elkarteak honako hauek aurkeztu beharko ditu: **zerga-betebehar guztiak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria,** zerga-administrazio eskudunak emana, eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dituela edo erakundeak bere kargura langilerik ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria, Diruzaintza Nagusiak emana. Ziurtagiri horiek aurkeztu beharko dira bai erakunde onuradunarenak, bai hari lotutako eta hitzarmen honen zortzigarren klausulan jarduera azpikontratatzeko baimena duten erakundeenak.

4. **Justifikatzeko epea amaituta TENDEL elkarteak justifikatu gabeko dirulaguntzaren bat badu, ez zaio deialdi honetako dirulaguntzaren zenbatekoa ordainduko.** Era berean, ez zaio dirulaguntza ordainduko baldin eta entitate onuradunak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu hala agindu zaionean.

5. Programatutako jardueretako batzuk egiterik ez badago, entitateak beste batzuk egin ahal izango ditu haien ordez, Udalak aldez aurretik baimena emanda,

QUINTA: PRESUPUESTO DEL PROYECTO Y SUBVENCIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO.

1. El Ayuntamiento de Bilbao concederá en el año 2026 a TENDEL (CIF G95059564) una subvención por importe de **50.000,00 €** para la realización de las actividades previstas en el presente Convenio.

2. El abono de la subvención se efectuará en **un único pago**, por anticipado, y sin que se preste ninguna garantía por esa cantidad.

3. Para hacer efectivo el pago **será necesaria la certificación acreditativa de estar al corriente en el pago de las obligaciones fiscales** expedida por la administración tributaria competente y certificación acreditativa de estar al corriente del pago de las obligaciones de la Seguridad Social, o de no tener la entidad trabajadores a su cargo, expedida por la Tesorería General, tanto de la entidad beneficiaria como de las entidades vinculadas con ella con las que se le autoriza a subcontratar la actividad en la cláusula octava del presente convenio.

4. El **abono de la subvención no se llevará a cabo en tanto TENDEL tuviese pendiente de justificar alguna subvención cuyo plazo de justificación hubiera ya finalizado**. Tampoco se procederá al abono si la entidad beneficiaria no hubiese reintegrado alguna subvención anterior, cuando así se le hubiese requerido.

5. En el supuesto de que no sea factible llevar a cabo algunas de las actividades programadas, la entidad podrá sustituirlas por otras, previa autorización

eta betiere jarduera horiek 2026an egiten badira eta antzekoak badira eta dirulaguntzaren xedea eta helburua hutsaltzen ez badituzte.

6. TENDEL elkarteak **programari atxikitako profesionalen izen-abizenen zerrenda emango dio Giza Eskubideak, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasuna Sailari**, bai eta haien egiaztagiri profesionalak ere (titulazio akademikoa eta curriculuma).

7. Hitzarmen honen bidez dirulaguntza jasoko duen **programaren aurrekontua 2. ERANSKINEAN** adierazitakoa da.

del Ayuntamiento, siempre y cuando dichas actividades se desarrollen dentro del ejercicio 2026 y sean afines y no desvirtúen el objeto y la finalidad para la cual se concede la subvención.

6. TENDEL **proporcionará al Área de Derechos Humanos, Convivencia, Cooperación e Interculturalidad, e Inmigración la relación nominal de la o de las y los profesionales adscritos al programa**, así como sus acreditaciones profesionales (titulación académica y currículo).

7. El **presupuesto del programa** subvencionado mediante este convenio se adjunta **en el ANEXO 2**.

SEIGARRENA.- BESTE FINANTZABIDE BATZUK

Dirulaguntza hau bateragarria da beste administrazio edo entitate pribatu nahiz publiko batzuetako dirulaguntzekin. Hala ere, jakin bezain laster, Giza Eskubideak, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasuna Sailari jakinarazi beharko zaio hitzarmen honen esparruan diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla. Era berean, diru-sarrera horiek udalaren dirulaguntza zertan erabili den justifikatzeko aurkeztu beharreko agiri ekonomikoetan jaso beharko dira, hurrengo klausulan ezarritakoaren arabera. Edozelan ere, dirulaguntzetatik eta beste iturri batzuetatik lortutako finantziazioaren zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa. Bestela, entitateak Bilboko Udalari itzuli beharko dio aldea.

SEXTA: OTRAS FUENTES DE FINANCIACIÓN

